

## 6. atala

Ilargi, Lur eta Maia basoaren erdian bizi zen emakume zahar baten etxera iritsi ziren beldurren mamuarengandik ihesean, baina emakume hark, beldurrari aurrez aurre begiratu eta lasai-lasai hitz egin zion.

Basoko arbolak baino altuagoa zen mamu hura txikitzen hasi zen, txikitzen-txikitzen, geroz eta txikiago, beraien lagun egina zen katuaren neurrikoa egin arte.

Gure hiru lagunak zur eta lur zeuden gertatzen zen guzti hari begirik kendu ezinik.

- Ez da komeni beldurrak hain handi egin daitezen uztea, gazteak – hasi zen emakumea.

- Baina... Zer? Nola egin duzu hori? – Maiak ez zuen ezer ulertzen baina hitz egitera ausartu zen lehena izan zen.

- Beldurra garrantzitsua da – jarraitu zuen, orduan, sorgin jakintsu itxura hartzen hasia zen emakume hark – beti entzun behar zaio, arriskuen aurrean ohartarazten baikaitu, baina behin entzunda, arrisku horiek zenbaterainokoak diren ikusi behar dugu beldurrari itsu-itsuan jaramon egin ordez.

- Baina, nik uste nuen beldurrik ez izatea zela ona – bota zuen Lurrek orduan.

- Kar, kar, kar! – hasi zen barrez emakumea – Beldurrik ez izatea beldur izatea baino arriskutsuagoa iruditzen zait niri. Entzun beti zuen beldurrei, baina ez utzi beldurrei beraiek agindu dezaten.

Emakumeak katilukada bana esne bero eman zien hiru lagunei eta laster, basoaren ertzeraino lagundu zien.

- Zoazte orain herrira! Gaur iluntzean jai handi bat duzue eta... - Emakumea hiru gazteak agurtzen hasi zen – urteko gaurik laburrenean,ugar handien argipean, gure beldur handienei ere beste begi batzuekin begiratzen diegu.

